



Galeuscak 2018ko ekainaren 14an eta 15ean Coruñaiko Luís Seoane Fundazioan egindako topaketetan bildurik, Galiziako, Valentziako, Euskal Herriko eta Kataluniako argitaletxeek honako ondorio hauek adostu dituzte:

ONDORIOAK

1. Gure arteko lankidetzaz-ildoak areagotzeko eta finkatzeko nahia adierazten dugu, gure nazio-hizkuntzak babestea helburu harturik.
2. Uste dugu kultura babestea inbertsio bat dela, eta ez diru-laguntzak emate hutsa.
3. Argitalpen-enpresak garen aldetik, liburuaren sektorean inbertsio publiko gehiago egitea eskatzen dugu, eta horretan, gure nazioetako Kultura, Industria eta Merkataritza sailei eskatzen diegu are gehiago inplika daitezela.
4. Gure nazioetako gobernuen arteko koordinazioari ezinbesteko irizten diogu, gure hizkuntzak babesteko politika bateratuak egingo badira.
5. Galeusca osatzen duten lurraldeetan egiten dituen inbertsioei dagokienez, Estatuari eskatzen diogu aplikatu ditzala diskriminazio positiboko neurriak, hizkuntza-aniztasuna bermatzeko.
6. Sektorearekin adosturiko irakurketa-planak inplementatzea eta betetzea behar-beharrezkotzat jotzen dugu, bai eta sektoreari behar beste ekonomia-baliabide ematea ere, halakoak martxan jartzeko.
7. Gure idazleen lanak nazioartean ezagutaraztearen alde egiten dugu apustu, haiek baitira gure literaturaren enbaxadore onenak.
8. Emakumezkoek liburuaren sektorean egiten duten lanaren garrantzia nabarmentzen dugu, eta generoagatiko desberdintasunak murriztu daitezela eskatzen.
9. Biziki kezkatzen gaituzte Estatuak adierazpen-askatasunaren kontra egindako erasoek.

Ondorio hauek gure nazioetako gobernuari eta Estatuako gobernuari bidaliko zaizkie.

Coruña, 2018ko ekainaren 15ean